OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO UDALA

TGB (7)

### Alkatearen proposamena

**Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-udalburua, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.**

**Gaia:** Magnet S. Coop: Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntza eskaera onartzea.

Unai Kortabarria Errastik, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Saileko teknikariak, 2022ko ekainaren 8an egindako Soziekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak honela dio:

*"Expediente zk. 2022ZDKO0001*
*Expedientearen helbidea: FORUEN ENPARANTZA 1*
*Udalerria: OÑATI*
*Gaia: Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntza.*
*Interesduna: Magnet Koop Elk. Txikia*
*Prozedura: ZDKO Udalak emandako diru-laguntzak (konpetentziaz)*

*Hasiera-data: 2022/05/27*

*Sarrera erregistroa: 2079/2022*

*Asier Galdos Alberdik, "Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntza" eskaera egin du 2022ko maiatzaren 27an.*

*Aipatutako gaiari dagokionez, jarraian azaltzen dira **gertakariak**:*

*Lehenengoa.- Asier Galdos Alberdiri eskatu zaio dirulaguntza eskaera Magnet Kooperatiba Elkarte Txikiaren izenean bideratzea eta ordezkaritza aurkeztea.*

*Bigarrena.- 2022ko ekainaren 8an, aurkeztu du Asier Galdos Alberdik, Magnet Koop Elk. Txikiaren ordezkari gisa jarduteko eskaera.*



*Hona hemen azaldutako **gertakarien balorazioa**:*

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean eta Oñatiko Udalaren Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntzen oinarriak kontuan izanda,*

*Lehenengoa.- Magnet Koop Elk. Txikiak betetzen dituela dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko oinarrien 3. artikuluan zehaztutako erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak.*

*Bigarrena.- Kontratatu den pertsonaren baldintzei dagokionez, betetzen direla baita 4. artikuluan zehaztutako "Kontratatuko diren pertsonen baldintzak".*

*Hirugarrena.- Kontratu mugagabea eta jardunaldi osoko izanda eta lan kontratu horrek enpreserentzako enplegu-sorrera garbia suposatu duela kontuan izanda, betetzen direla oinarrien 5. Artikuluan zehazten diren kontratuen baldintzei dagozkienak.*

*Laugarrena.- Azaldutako gertakarien balorazioa eginda eta 6. Artikuluan zehaztutako laguntzen zenbatekoak kontuan hartuta, 1.690 euroko dirulaguntza onartzea proposatzen da, honela kalkulatuta:*

- *Kontratu mugagabea eta jardunaldi osoan: 1.300 euro.*
- *%30eko gehikuntza: 35 urtetik beherako pertsona kontratatzeagatik."*

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

**38/2003.** Legean nabarmentzekoak dira artikulu hauek:
**30.2 artikulua:** *"Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo*

*diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."*

**34.3 artikulua:** *"Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*
*Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."*

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere **3.**
**Artikuluan 1 eta 2** ataletan honakoa xedatzen du:
*"1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.*
*2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela."*

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia eta Turismo batzordean eman ostean, honako erabaki proposamena egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

**Lehenengoa.-** Asier Galdos Alberdik, Magnet Koop Elk. Txikiaren izenean, aurkeztutako dirulaguntza eskaera onartzea.



**Bigarrena.-** Dirulaguntza ordaintzeko 1.690€-ko gastua onartzea, 1 1000.480.241.04.01 2022 (5191) aurrekontu partida eta bere lotespen mailaren kontura eta gastu hori ordaintzea.

**Hirugarrena.** - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (https://www.xn—oati-gqa.eus/eu) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**Laugarrena.** - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

**Bosgarrena.** - Erabaki hau eta Kontuhartzailetza eta diruzaintza sailei jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Oñatin, 2022ko ekainaren 22an

Alkatea

OÑATIKO UDALA ALKATEGOA

Sin.: Izaro Elorza Arregui andrea.